

PINUDIKO APARKALEKUAN GARAJE-TOKIA ESKATZEN DUTENEN ERREGISTROA. IRUNGO UDALA / IRUNVI. FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIAK.

I. SARRERA.

Irungo Udalak bere helburuen artean dauka udalerrian dagoen aparkaleku defizita konpontzea eta, horrela, gune publikoa behar bezala okupatzen laguntzea. Horrenbestez, interesaturik dago, hain zuzen, PINUDIko bizitegi-poligonoa berriz urbanizatu eta ekipatzeko jardueretan. Horretarako, lur azpian aparkaleku bat eraikiko da, hango auzotarrentzako batik bat.

Horretarako, Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa/Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.U (aurrerantzean IRUNVI), Hirigintzako departamentuarekin koordinatuta, arduratzen da toki horiek sustatzeaz, eta era berean, eskatzaileen erregistroa kudeatuko du, horiek izango baitute aukera ondorengo artikuluetan jasotako betekizunak beteta garajeen esleipendunak izateko.

Ondorioz, IRUNVIko Administrazio Batzordeak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zituen ondoko “Irungo Udalaren/IRUNVIren Pinudiko Aparkalekuan Garaje-tokiak Eskatzen dituztenen Erregistroaren Funtzionamendurako Oinarriak”.

II. ERREGISTROAN IZEN-EMATEA

1 Artikulua.- Izen-emateko eskaera

Erregistroan sartzeko, izen-emateko eskera egin beharko da, IRUNVIk emango duen ESKAERA ereduaren arabera.

2. Artikulua.- Betekizunak.

Pertsona fisikoentzako:

1. Automobil baten titularra izatea.
2. Bizileku finkatua eta iraunkorra edukitzea esleipenaren xedeko edozein gunetan.

Eskaera berean garaje-toki bat baino gehiago lortu nahi bada, ibilgailuen titular guztiek bizileku bera izan beharko dute.
3. Gida-baimena indarrean edukitzea.
4. Ibilgailu bakoitza alta emana eta eguneratua edukitzea zirkulazio-zergen erroldan.

Bi baimenek garaje-tokia eskatzen duenaren izenean agertu beharko dute.

Pertsona juridikoentzako:

1. Automobil baten titularra izatea.
2. Jarduera komertzial, profesional edo industrial baten titularra izatea esleipenaren xedeko gunean.

Eskaera berean aparkaleku bat baino gehiago lortu nahi bada, ibilgailuen titular guztiek lotura eduki beharko dute, profesionalki edo laboralki, enpresa edo erakunde horrekin.

3. Gida-baimena indarrean edukitzea.
4. Ibilgailu bakoitza alta emana eta eguneratua edukitzea udal honetako zirkulaziozergen erroldan.

Kasu horretan, garaje-tokia eskatzen duen enpresa edo erakundearen izenean egon beharko du zirkulazio-zergak, eta gida-baimenak, berriz, enpresari edo entitateari laboralki edo profesionalki lotuta dagoen pertsona fisikoaren izenean egon beharko du.

Minusbalioetarako:

Minusbaliotuentzako plaza bat eskatuz gero, mugikortasun gutxitu iraunkorreko elbarritua dela egiaztatu beharko du.

Ondorio horietarako, mugikortasun gutxituko elbarriak izango dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. Eranskinean jasotzen direnak, dekretu horren bidez erregulatzen baita minusbaliotasuna aitortzeko, adierazteko eta sailkatzeko prozedura, eta betiere organo eskudunak emandako ziurtagiri bidez akreditatu beharko dute haien egoera. Hona zeintzuk jasotzen diren:

- Gurpil-aulkian daudenak
- Ibiltzeko nahitaez bi makulu behar dituztenak.
- 7 puntu edo gehiago batzen dituztenak, gaitzat hartuta aipatutako eranskinaren D) eta H) atalak.

3. Artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurreko artikuluan aipatutako datuak akreditzeko, eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera:

- Indarrean dagoen gida-baimenaren fotokopia.
- Garaje-tokia eskatzen duen ibilgailu(ar)en zirkulazio-baimenaren fotokopia.

Bertan bizi direnen pertsona fisikoen kasuan, garaje-tokia eskatzen duenaren izenean egon beharko dute bi baimenek.

Pertsona juridikoentzako (merkatarietzako edo profesionalentzako), aparkaleku plaza eskatzen duen enpresaren edo erakundearen izenean egon beharko du zirkulazio-baimenak, eta gida-baimenak, berriz, enpresari edo entitateari laboralki edo profesionalki lotua dagoen pertsona fisikoaren izenean egon beharko du.

Pertsona juridikoen kasuan, goian adierazitako dokumentazioaz gainera, honako hau aurkeztu beharko dute:

- Udalaren jarduera-lizentziaren fotokopia.

Mugikortasun gutxitu iraunkorra dutenen kasuan, goian adierazitako dokumentazioaz gainera, honako hau aurkeztu beharko dute:

- Mugikortasun gutxituko minusbaliotasunaren egoera eta izaera akreditatzeko dagokion erakundeak emandako ziurtagiriaren fotokopia.

Nolanahi ere, IRUNVIk dokumentazioa eska dezake, jatorrikoa edota fotokopia, Oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko egokia dela irizten badio.

Pertsona bera ezin izango da aldi berean bi eskaeretan erregistratuta egon, pertsona fisiko eta juridiko gisa lortzeko aukeran izan ezik. Kasu horretan, bi eskaera bete beharko ditu.

Ibilgailu bera ezin izango da eskaera bat baino gehiagotan agertu, ezta eskaera bereberetan pertsona bati baino gehiagori lotua egon.

Baldin eta erregistroan izen-emandako pertsona batek gero beste eskaera batez izen-eman nahi badu, azkena aurkeztutako eskaeraren arabera geratuko da Erregistroan izen-eman.

4. Artikulua.- Lagapen erregimena.

Pinudiko garaje-plazen erabileraren lagapena egingo du Irunvik, 2006ko uztailaren 26an Irungo Udaletik jasotako 75 urteko administrazio emakida prozeduraren bidez.

Titularrek beraiek erabiliko dituzte garaje-plazak, eta ezingo dira edonola ere, ez alokatu ez utzi hirugarren bati.

Hartzen dutenak behartuta daude sor litezkeen gastu guztiak beren kontura ordaintzera (mantentze-lana, etab.), eta horretarako, erabiltzaileen komunitate bat eratu beharko dute”.

5. Artikulua.- Plazak transmititzea.

Aparkatzeko tokiak edozein unetan transmititu ahal izango ditu haren titularrak, betiere IRUNVIri jakinarazi beharko dio, eta Irunvik erabakiko du hurrengo hartzailea nor izango den, une bakoitzean dagoen itxaronzerrendaren arabera, eta, era berean, tokia erabiltzeko eskubide eguneratuari dagokion balioa ezarriko du. Eta dagokion salerosketa-eskrituran adieraziko da puntu hori.

Jaraunspen kasuan, garaje-plaza Oinarri hauen 2 eta 3 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten nahitaezko jaraunseei transmititu ahalko zaio zuzenean.

Horrela izanez gero, IRUNVIri jakinarazi beharko zaio transmisioa gerta litekeela, eta azken finean hark hartuko du erabakia.

Toki berrirako eskatzaileak ez balego, IRUNVI ez da behartuta egongo hura hartzera, eta, horrenbestez, titularrak jarraitu beharko du hitzartutako konpromiso ekonomiko guztiei aurre egiten, transmisioa burutzen ez den arte.

Urtebetez geroztiko edozein transmioreen prezioa esleipeneko izango da, KPIren arabera gehituta.

INOLAZ ERE EZINGO DA UZTARTU GARAJE-PLAZAREN TRANSMISIOA ETA ETXEBIZITZAREN / LOKALAREN SALMENTA.

6. Artikulua.- Betekizunak betetzea.

Itxaronzerrendan egoteko, betekizunak bete egin beharko dira. Betekizunak egiaztatu egingo dira, eskatzailea itxaronzerrendatik esleipendun izatera igarotzen bada.

Bestalde, IRUNVIk urtero egiaztatuko du garaje-plazaren esleipendunek betekizunak betetzen dituztela.

7. Artikulua.- Erregistroan baja ematea.

IRUNVIk eskatzaileei baja emango die erregistroan, baldin eta emandako datuetatik edo ofizios lortutakoetatik (biztanleen udal errolda, etab.) ondorioztatzen bada izen-emateko eskatzen diren betekizunak jada ez dituela betetzen.

Era berean, eskatzaileei baja emango zaie erregistroan, baldin eta garaje-plaza baten esleipendun gertatuta hari uko egiten badiote, espreski edo adierazi gabe.

8. Artikulua.- Erregistroko datuen baliotasuna.

Erregistroan datuak sartu izanak ez du esanahi IRUNVIk denboran zehar egiazkotasuna edo egonkortasuna aitortzen dienik, eta, horrenbestez, elkarte publikoaren aurrean akreditatu beharko dira garaje-plazaren jabetzako eta lagapenezko kontratuak sinatu aurretik.

9. Artikulua.- Datuak babestea.

15/1999 Lege Organikoaren betekizunak beteko ditu Erregistroak. Lege hori Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa da, eta Izaera Pertsonaleko datuak dauzkaten Fitxategi Automatizatuaren Segurtasun Neurrien Erregelamendukoa, eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak onetsi zuen.

III. GARAJE-TOKIAK ESLEITZEKO PROZEDURA

10. Artikulua.- Esleitzeko prozedurari loturiko garaje-tokiak.

Esleipenaren xede dira Irungo Udalak, IRUNVIren bidez, ekipamendu komunitarioko partzeletan sustatutako Pinudiko aparkalekuko garaje-tokiak.

11. Artikulua.- Eskatzaileen erregistroan egotea.

Aurreko atalean aipatutako garaje-tokiak lortzeko interesa duenak izena eman beharko du Pinudi aparkalekuko garaje-tokiak eskatu dituztenen erregistroan.

12. Artikulua.- Garaje-tokiak Esleitzen Hasteko Deialdia.

1. IRUNVIren Administrazio Batzordearen Dialdiaren bidez hasiko da 10. artikulua aipatzen dituen garaje-tokien esleipendunak hautatzeko prozesua.
2. Deialdi hori IRUNVIren bulegoetan jarriko da ikusgai, eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan. Haien argitarapena Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da, eta honako hauek azalduko ditu, gutxienez:
 - a) Zozketaz esleitzeko garaje-tokien kopurua.
 - b) Mugikortasun gutxitu iraunkorra daukaten minusbaliotuentzat erreserbatutako garaje-toki kopurua.
 - c) Noiz arte kontuan hartuko diren Pinudi Aparkalekuko garaje-tokien Erregiroan izen-emateko eskaerak.
 - d) Garaje-tokien prezioa.
3. Betekizun espezifikoak.

Deialdi bakoitzean, betekizun espezifikoak eskatu ahal izango dira, beiteren 2. artikuluan adierazitako orokorrak betez zehatzago azaltzeko.

13. Artikulua.- Esleipenaren xedeko guneak.

- A gunea: Pinudi eta Bera Bidasoa kaleetako zenbaki guztiak.

Pinudi kaleko atzealdeko lokalak (Hondarribia kalea, zk. g.).

Antzaran plaza, 1etik 16ra

Antzaran eta Lesaka kaleak

- B gunea: Lekaenea kalea, 14tik 30era.
Lucas de Berroa kalea, 2tik 14ra (biak barne)
Hondarribi kalea, 15etik 43ra (biak barne).
- C gunea: kale hauen artean kokatzen dira (kale horiek ere sartzen dira gune horretan): Hendaia, Lope de Irigoyen, Geltokikoa, Anaka, Donostia eta Santiago Urtizbera. Gune honetan ez daude A eta B guneetako kaleak eta zenbakiak.
- D. Gunea: Irungo gainerakoak.

14. Artikulua.- Garaje-plazak eskatzaileen artean esleitzea.

Garaje-tokiak esleitzeko, honako kupo hauek ezarriko dira:

- Kupo orokorra.
- Mugikortasun gutxitu iraunkorreko minusbaliotuen kupo.

Kupo orokorrerako nahiz mugikortasun gutxitu iraunkorra duten mainusbaliotuen kuporako, honako **lehentasun-talde** hauen arabera egingo da esleipena:

1. TALDEA:

A GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

II. TALDEA:

A GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

III. TALDEA:

A GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

IV. TALDEA:

A GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

V. TALDEA:

B GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VI. TALDEA:

B GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VII. TALDEA:

B GUNEko bizilagun gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

VII. TALDEA:

Irungo Etxebizitarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.

B GUNEko merkatari edo profesional gisako eskaerak:

- Eskaeran eskatutako bigarren tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik ez badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.
- Eskaeran eskatutako lehenengo tokia, baldin eta ibilgailuaren titularrak beste garaje-tokirik baldin badauka, jabetzan edo lagapen-erregimenean, esleipenaren xedeko guneetan.

IX. TALDEA:

C guneko eskatzaileak

X. TALDEA:

D guneko eskatzaileak eta aurreko inongo taldetan ez dauden gainerako eskatzaileak.

15. Artikulua.- Zozketa.

Eskaria toki-eskaintza baino handiagoa bada, bi zatitan egingo da garaje-tokien zozketa:

- 1.- Garaje-tokien esleipendunak hautatzeko zozketa.
- 2.- Zozketaren lehen zatiko esleipendunen artean garaje-tokiak esleitzeko zozketa.

Eskaria eskaintza baino handiagoa ez bada, zozketa bakarra egingo da tokia hautatzeko.

Zozketak ekitaldi publikoan eta Notario aurrean egingo dira, eta hark emango du emaitzen fede.

Zozketaren ondorioetarako, bi kupotan banatuko dira garaje-tokien eskatzaileak:

- **Kupo orokorra.**
- **Mugikortasun gutxitu iraunkorreko minusbalioetuen kupoa.**

Kupo orokorra

Kupo horretarako toki guztiak dagokion I. TALDEko kideen artean zozkatuko dira.

Garaje-tokiak talde horrekin osatzen ez badira, soberako tokiak II. TALDEko eskatzaileen artean zozkatuko dira. Eta horrela, hurrenez hurren, gainerako taldeekin.

Mugikortasun gutxitu iraunkorreko minusbaliotuen kupoa

Kupo horretarako toki erreserbatu guztiak dagokion I. TALDEko kideen artean zozkatuko dira.

Garaje-tokiak talde horrekin osatzen ez badira, soberako tokiak II. TALDEko eskatzaileen artean zozkatuko dira. Eta horrela, hurrenez hurren, gainerako taldeekin.

Dena dela, talde bakoitzean, baldintza beretan, honako lehentasun hau ezarriko da:

- 2. Artikuluaren 7. puntuan aipatutako baremoan A daukatenak.
- 2. Artikuluaren 7. puntuan aipatutako baremoan B daukatenak.
- 2. Artikuluaren 7. puntuan aipatutako baremoan 7 puntu edo gehiago daukatenak.

Behin zozketa bukatuta toki librerik balego, kupo orokorreko itxaronzerrendara igaroko da, eta haren prezioa tokiaren m²-en proportziozkoa izango da, eta dagokion KPIren arabera haziko da bere balioa.

16. Artikulua.- Itxaronzerrenda egitea.

Behin zozketa eginda, honela egingo dira itxaronzerrendak, bai kupo orokorrerako bai mugikortasun gutxitu iraunkorra duten minusbaliotuen kuporako:

- Talde bakoitzetik ateratako azkeneko bolaren hurrengo zenbakiak ezarriko du talde horren itxaronzerrendaren ordena.
- Garaje-toki guztiak aurreko taldeetan esleitu direlako talderen batean zozketarik egiten ez bada, zenbaki bakar bat aterako da, eta zenbaki horrek ezarriko du talde horretako itxaronzerrenda, eta horrela, hurrenez hurren, gainerako taldeekin.

Zozketa egin ondoren, Pinudiko aparkalekuan garaje-tokien eskatzaileen erregistroan izen-ematen dutenak dagokien taldeen itxaronzerrendan jarriko dira, azken lekuan.

17. Artikulua.- Esleitzeko moduak.

Zozketaren prozesuak kontuan hartuko ditu honako alderdi hauek:

1. Zuzenketa behar duten eskatzaileen zerrendak argitaratzea.

Deialdiaren egunaren ondoren, zuzenketa behar duten garaje-toki eskatzaileen zerrendak egingo dira, eta ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan, eta hamar egun naturaleko epea emango da zuzenketa horiek egiteko.

2. Onartuen eta ez-onartuen zerrendak onestea.

2.1.- Zuzentzeko epea amaituta, IRUNVIren Administrazio Batzordeak onartuen eta ez-onartuen zerrendak onetsiko ditu.

2.2.- Zerrendak ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren IRUNVIren Web orrietan, eta Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da haien argitarapena.

2.3.- Zerrenden onespeneren aurka, erreklamazioa egin ahal izango da IRUNVIko Administrazio-batzordearen aurrean, 15 egun naturaleko epean, Gipuzkoako egunkari hedatuenean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3. Garaje-tokien esleipendunak hautatzeko zozketa.

3.1.- Aurkeztutako errekurtsioak erabakita, eta zozketako zenbakiak ausaz esleituta, zozketa horretarako zerrendak egingo dira, zenbaki horiek sartuta eta kupotan eta taldetan banatuta. Zerrendak ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan, zozketaren lekuan eta egunean eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan, eta Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da haien argitarapena.

3.2.- Esandako egunean, ekitaldi publikoan egingo da zerrenda bakoitzeko garaje-tokiaren esleipendunak hautatzeko zozketa. Zozketa hori Notarioaren aurrean egingo da.

3.3.- Hautatuen behin-behineko zerrendak egingo dira. Era berean, itxaronzerrenda behin-behinekoak egingo dira, garaje-tokiak baino eskaera gehiago baldin badaude. Zozketak ezartzen duen lehentasun-ordenaren arabera egingo dira itxaronzerrenda horiek.

IRUNVIko Administrazio-batzordeak onetsi beharko ditu hautatuen behin-behineko zerrendak nahiz itxaronzerrendak, eta zerrenda horiek ikusgai jarriko dira IRUNVIko bulegoetan eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren web orrietan, eta erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Administrazio Batzorde horren aurrean, hilabeteko epean.

Hautatua izateak ez dakar deialdiko eta oinarrietako baldintza eta eskakizun guztiak betetzea, eta horrenbestez, jakinarazi egingo zaie 10 egun naturaleko epean aurkeztu behar dutela betekizun hori egiaztatzeko dokumentazioa.

3.4.- Dokumentazioa aztertuta eta egoki iritzitako behar adina egiaztapen egin ondoren, IRUNVIren Administrazio Batzordeak onetsiko ditu behin betiko hautatuen zerrendak eta itxaronzerrendak. Zerrenda horiek ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan, eta Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da haien argitarapena.

3.5.- Itxaronzerrendak indarrean eta zabalik jarraituko dute esleipenean parte hartu ez zutenentzako, eta nahi badute horietara sartu ahal izango dira (eskutzen diren betekizunak beteta), betiere dagokien kupoko eta taldeko itxaronzerrendako azken postuan.

4. Hautatuen zerrendako kideei garaje-tokiak esleitzeko zozketa.

Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.

4.1.- Gero, IRUNVIk hautatuen zerrendako kideei esleituko dizkie garaje-tokiak. Esleipen hau zozketa publikoan eta Notario aurrean egingo da.

4.2.- Zozketa egin ondoren, IRUNVIren Administrazio Batzordeak garaje-tokiak esleitzeko zerrendak onetsiko ditu, eta zerrenda horiek ikusgai jarriko dira IRUNVIren bulegoetan eta Irungo Udalaren eta IRUNVIren Web orrietan, eta Gipuzkoako egunkaririk hedatuenean iragarriko da haien argitarapena.

5. IRUNVIren Administrazio Batzordeak onetsi ondoren esleipenetan gerta litezkeen aldaketak Batzordeak berak jakinaraziko eta berretsiko ditu.

18. Artikulua.- Esleipena formalizatzea.

1.- Dagozkion egiaztapenak eginda, hautatu bakoitzari jakinaraziko zaio zein garaje-toki egokitu zaion, eta 15 egun naturaleko epea izango dute, garaje-tokia onartzeko edo hari uko egiteko.

2.- Erregistratutako eskaeran titular agertzen diren guztiekin egingo da soil-soilik esleipenarekin zerikusia daukan dokumentu oro.

Irun, 2006ko abenduak 29

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA
DE VIVIENDA DE IRUN SAUko Administrazio Batzordearen Presidentea,

Sin.: José Antonio Santano Clavero